



# BADUGU, BADAGO

EUSKARARI BURUZKO IBILBIDEA

LEHEN HEZKUNTZAKO HIRUGARREN ZIKLOKO  
IKASLEENTZAT

# STM

## San Telmo Museoa

IRAKASLEENTZAKO KOADERNOA

# BADUGU, BADAGO

## EUSKARARI BURUZKO IBILBIDEA

### LEHEN HEZKUNTZAKO HIRUGARREN ZIKLOKO IKASLEENTZAT

San Telmo Gizarte Museo bat da, euskal kulturaren alor guztiak jorratzen dituena, erakustareto iraunkorretan edota aldi bateko erakusketetan zein tailer edo bestelako jardunbideetan.

"Badu, bada" aldi bateko erakusketaren ondotik, San Telmo Museoak "BADUGU, BADAGO" euskarari buruzko ibilbidearen bidez, bisitariak euskararekin dituzten harreman motak agerrarazi nahi dira. Azalez proposamen arin eta jostagarriak diren arren, edukiz mamitsuak eta zer pentsa ematen dutenak dira.

Halaber, proposatzen den ibilbidea, ohiko gidatua baino, dinamizatu da. Alegia, dinamizatzailerik taldea xaxatu, zirikatu, hitz egitera animatuko du, galderekin, proposamenekin, hitz jokoeekin... Bisitariaren jarrerak aktiboa izan behar duenez, haien esperientziak eta iritziak, parte-hartzeak eta bizi diren inguru soziolinguistikoak interesatzen zaizkigunez (zenbat hizkuntzatan bizi diren, eta nola bizi duten –dugun– hizkuntzen arteko dantza hori), dinamizatzailerik bideratuko du jarduna, arina eta bizia izan dadin, bai erakustareto iraunkorretan, bai hezkuntza-tailerrean

Horrexegatik ere, hemen egiten diren aktibitateen proposamena orientabide bat baino ez da, taldearen arabera molda daitekeena. Ez da ibilbide itxia, bada, proposamen irekia baizik. Taldeak bisita autonomo bat egin nahi badu, museoko dinamizatzailerik gabe, hementxe ditu egin daitezkeen ariketen adibideak, lagungarri; baina irakasleak edo arduradunak askatasun osoz erabaki dezake nolako ibilbidea egin.

Ordenari dagokionez, ez da garrantzizkoa lehenik tailerrean jardutea eta gero erakustareto iraunkorretan edo alderantziz. Areago, askatasun horrek ahalbidetzen du bi talde batera aritzea, bata espazio batean, eta bestea, bestean. Kontuan hartuta ariketa egoki gauzatuko bada taldeek gehienez 25na lagunekoak izan behar dutela, horrela denbora berean bi ikasgela edo autobuskada bat egon daitezke.



**Jarduera osoa egiteko, ordu eta erdi kalkulatzen da.**

## **Bisitaldiaren nondik norakoak:**

### Bisitaren hasiera, harreran edo, eguraldi ona eginez gero, plazan bertan:

Ongietorria, Museoaren aurkezpena eta egin beharreko bisitaren nondik norakoak.

### HEZKUNTZA-TAILERREAN:

Bertan egin beharreko aktibitateen gauzatzea.

### GOIKO SOLAIRUKO klaustroko “Tradizioak bizirik dirau” aretoan:


Hain zuzen, “Tradizioak bizirik dirau” aretoko hainbat ataletan. Hemen bukatzen da bisitaldi dinamizatua.

### Bisitaldia bukatzeko:

Berriro klaustrora aterata, euskarari buruzko modulu elkarreragilean, nahi izanez gero, ikasleek **ukipen-pantailan** aritzea izango dute, ikusitakoaren errepasso modura: Edukiak bisitaldiarenak dira, era ludikoan aurkeztuak. Bertatik hurbil dagoen dorrerantz joanda, jaitsi eta dendan barna harreraraino bueltatu; handik plazara atera daiteke edo, **lehenago egin ez bada, Hezkuntza-Tailerrera jo, azken ariketak egiteko.**



Hitzen esanahien  
aldaketen ariketa



## **SOINUAK MUNDUAN DAUDE, BAINA HIZKUNTZAK... GURE BURUETAN**

### **LEHENENGO ARIKETA:**

#### **Zer dira hitzak? zentzua duten hotsak.**

Badu, bada... edo bada, badu. Baina ez badu, ez da, eta ez bada, ez du. Beste hizkuntzetan ez dago halakorik esaterik. Edo, hobeto esanda, ez dago hala esaterik. Bakoitzak bere soinu-mundua duenez, zentzuen mundua ere aldatzen da, eta haiekin, hitz-jokoak.

Hizkuntza guztietan gauza berberak esan daitezke, baina ez modu berberean. Horregatik esaten da italieraz: traduttore, traditore. Itzul daiteke beste hizkuntzetara? Bai, jakina: itzultzaile, traidore, baina graziaren erdia galtzen du, ez da?

#### **Zer dira hizkuntzak, bada?**

Soinuak (hitzak) elkartuz ideiak adierazteko moduak.

Zer da "Palindromo" hitza?: hitz-joko mota bat definitzeko hitz potoloa. Hizkuntza guztietan egin daitezke; baina bakoitzak bereak beharko ditu. Euskaraz egin den palindromorik luzeena, zuek besterik esan arte behintzat, hauxe omen da:

***Ze nekeza inori atea irekitzea eztikeria eta ironia zekenez***

Jakina, hauek baino errazagorik badago:

aza / Unanu / aisia / edade / eme / erre / ihi / arra / ama / amama / ibi / era – are / atal – lata / nekez – zeken / ero – ore / oilo – olio / erru – urre /

Eta zailxeagorik ere bai:

Autore erotua / Atara zarata / Zein? Ni ez / Iker, ireki

Gaztelaniaz ere halako asko dago:

ara / asa / rallar / rayar / recocer / reconocer / animal – lamina / aval – lava / los – sol / azar – raza / dábale arroz a la zorra el abad

Eta ingelesez ere bai: Bob / dad / mum / dog - god /

Eta beste hizkuntzetatik eratorri eta geureganatuak:

Radar: RADAR radio detection and ranging inisialetatik osatutako hitz berria

Sos: SOS Save Our Souls ingelesezko esamolde laburtutik eratorria

Kaiak: txalupa mota bat, eskimalen hizkuntzan

**BIGARREN ARIKETA:**

## **EUSKAL HERRIA... EUSKARAREN HERRIA?**

### **Zenbat hizkuntza daude munduan? Eta European?**

Uste zenutena baino gehiago ala gutxiago dira?

Non mintzatzen da belgieraz, austrieraz?

Eta yidish? Eta sefarditaz? Eta romaniz? Eta erromintxelaz?

Zenbat estatutan mintzatzen da katalanez?

Eta Espainian, zenbat autonomia-erkidegotan? Eta galegoz?

### **Zer du berezi euskarak, Europako beste hizkuntzek ez dutena?**

Noizdanik mintzatzen da euskaraz Euskal Herrian?

### **Euskarak iragan sakona du; baina... etorkizun luzea?**

XXII. mendean euskaraz mintzatuko dela bermatua dagoela uste duzue?

### **Euskara hizkuntza zaharra ala berria da?**

Zer da zaharragoa, euskara ala gaztelania? Zer dela eta?

Zein da modernoagoa, euskara ala gaztelania? Zer dela eta?

### **Beharrezkoa al da hizkuntza batek ofizialtasuna izatea bizirauteko? Eta eskolan irakastea?**

Nahikoa al da?

**HIRUGARREN ARIKETA: *JAKITEAK EZ DU OGIRIK JATEN*****EUSKARA, GUREA... ZENBAT HIZKUNTZEKIN BATERA?**

**Noiz egiten duzue euskaraz eta noiz erdaraz? Noiz biak batera?  
Eta beste hizkuntzetan ere egiten duzue?**

Zuek erabakitzen al duzue uneoro zein hizkuntza erabili, ala besteen nahietara moldatzen zarete?

**Ingalaterrara joago bazinete, ingelesa ikasiko zenukete? Eta Frantzian frantsesa?**

Eta Katalunian katalana? Eta Frantziako Katalunian?

Hona datozenek euskara, gaztelania, ala biak ikasi behar dituztela uste duzue? Eta haien seme-alabek?

**Euskaraz eskolan baino ez bada egiten, zer da euskara, hizkuntza aspergarria ala dibertigarria?**

Zer behar du hizkuntza batek bizia izateko?

**Zenbat txiste dakizue euskaraz?**

Eta zenbat nintendo, game boy, wii daukazue euskaraz, edo zenbat film ikus dezakezue euskaraz?

Zuek nola pasatzen duzue hobeki, euskaraz ala erdaraz?

## LEHEN ETA ORAIN, EUSKARAZ NONAHI

**GOIKO KLAUSTROKO "TRADIZIOAK BIZIRIK DIRAU" ERAKUSTARETOETAN EGIN BEHARREKO ARIKETAK.**

**Berritu ala hil, esan ohi da. Hizkuntzentzat ere balio izaten du.**

Gaur egun erabiltzen ditugun hitz asko aspaldi handikoak dira. Alabaina, jatorrian zuten esanahitik abiatuta, maiz bestelako zentzuz erabiltzen ditugu gaur egun. Eta aldatzen jarraituko dute:

- artaziak (jatorrian, artilea moztekoak baino ez)
- mandoa (aberea; orain, erdaratik hartuta, urrutiko pizgailua)
- oporra (zurezko katilu handi modukoa, orain jaieguna)
- sardexka (sarde txikia delako; sardea belarretarako lanabesa da)
- kutxa (zurezko kaxa handia, orain dirutarako banku mota)
- jorratu (gai bat landu; lehen, soroetan jorraiaz belar txarrak kendu)
- otarraina (otarrean harrapatzen zirelako)
- zamaltzaina (zamarien zaina, orain, Zuberoako dantzari mota bat)
- hausnartu (behien jateko modua, orain sakon pentsatzeko esana)
- iraultza (goldeaz lurra bueltatzea; orain, erabateko aldaketa politiko-soziala)

Irainak: maiz, jatorriz beste zentzu bat duten hitzak erabiltzen dira.

- segapoto (Museoa badan, segarria eramateko)
- artaburu,
- babalore,
- kaiku (museoan ale ederrak badaude),
- kirten,
- tontolapiko,
- mozkor (jatorrian, enbor puska)
- aitzurra harrapatu (mozkortu)
- arraina harrapatu (mozkortu: Olentzero "begigorriak" egin omen zuena "Zurriolako arroketan arratseko hamaiketan")
- kontakatilu
- txoriburu
- atunburu

Denboraren poderioz, askotan jatorrizko zentzuan ez dira erabiltzen.

Erdaraz ere gertatzen da: nork daki zer esan nahi zuten jatorrian tarugo (egur puska), hortera (etxez etxeko saltzailea), charlatán (saltzaile ibiltaria), capullo (lore baten ñiñikoa)... hitzek?



# STM

San Telmo Museoa

“BADUGU, BADAGO” euskarari buruzko ibilbidea: LH 3. zikloko irakasleentzako koaderno

## Erakunde laguntzaileak:



## Patrono pribatuak:



**EL DIARIO VASCO**



**berria**<sup>info</sup>

**GARA**

**naiz:**